

FITXA: 212 - GIPUZKOA - Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa garapeneko proiektuetarako dirulaguntzen 2026ko deialdia.

Nori zuzendua: Honako hauek izango dira laguntza hauen entitate onuradunak:

- a) Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalak eta toki erakunde txikiak.
- b) Gipuzkoako Lurralde Historikoko Landa Garapeneko Elkarteak (LGE).
- c) Lehen sektoreari eta landa eremuko biztanleei zerbitzuak ematea helburu duten eta proiektuak Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten dituzten nekazaritza elkarteak eta kooperatibak.

Deialdia: GAO - Gipuzkoako Aldizkari **Deialdiaren data:** 2026/03/18
Ofiziala

Sarbide-esteka:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/hasiera>

Erreferentziazko araudia: 2026ko martxoaren 11ko Erabakia -
<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2025/03/31/c2502137.pdf>

Eragin eremuak: Tokiko Garapena eta Enplegua

Zenbatekoa: 800.000,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2024/03/19

Aurkezteko azken eguna: 2026/04/17

Aurrerakina: Ez da zehaztu

Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: Erakunde eskatzaile bakoitzari gehienez 100.000 euroko dirulaguntza emango zaio, deialdi bakoitzeko. **Gutxieneko zenbatekoa:** 10.000,00 €

Laburpena

Dirulaguntzen helburua Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa eremuen garapen integrala eta ekonomia bultzatzen laguntzea da, garatzen ari diren edo garatu nahi diren jardueren ekonomia eta ingurumen errendimendua hobetuz, bereziki, nekazaritza ustategietan, nekazaritza elikagaien ekoizpenaren merkaturatzea eta eraldaketa hobetuz eta entitate eskatzaileei azpiegiturak eta bitartekoak emanez Gipuzkoako landa eremuetan proiektuak garatzeko.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

- a) Kalitatezkoak, ingurumenaren aldetik jasagarriak eta ekologikoak diren nekazaritza

produktuak merkaturatzea, Lehen sektoreko ekoizleen lehiakortasuna hobetzeko inbertsioen bidez, nekazaritzako elikagaien katean hobeto integra daitezten, tokiko merkatuak eta banaketa zirkuitu laburrak sustatuz eta lan horiek erraztuko dituzten azpiegituretan inbertsioak eginez.

b) Toki entitateek, entitate txikiek eta landa garapeneko elkarteek (LGE) makineria eta ibilgailuak erostea, tokiko, eskualdeko, lurraldeko eta sektoreko komunitateek eskatzen dituzten zerbitzuak emateko, eskura dauden baliabideak modu arrazionalagoan aprobetxatuta, makineriaren kostuak murriztuta eta baserritarren bizi kalitatea hobetzeko ekintzak eginda.

c) Toki, eskualde eta lurralde eremuetan prestazio berriak eskaintzen dituzten inbertsio proiektu berritzaileak: hau da, nekazaritzako produktu berriak eraldatzeko, merkaturatzeko edo garatzeko proiektu berritzaileetan inbertsioak egiteko laguntzak. Kategoría honetan ez dira sartzen gaur egun prozesuan erabiltzen diren eta antzeko ezaugarriak dituzten beste ekipo batzuekin ordezkatzen diren ekipoak.

d) Landa eremuan ekonomia suspertzeko jardueretan/proiektuetan egindako inbertsioak.

e) Landa eremuetako ostatuak zaharberritzeko eta ekipatzeko, eta gizarte eta kultura zerbitzuetarako inbertsioak egiteko laguntzak. Ostatuaren kasuan, eskaera egiteko unean kudeaketa plan bat aurkeztu beharko da.

f) Nekazaritzako zerbitzuak modernizatzea eta digitalizatzea. Nekazaritzako zerbitzuak digitalizatzeko proiektuak abian jartzea, landa eremuaren eta hiri eremuaren artean dagoen eten digitala gutxitzeko. Kanpoan geratzen dira telekomunikazio sareak hedatzeko inbertsioak.

g) Landa elektrifikazioa. Transformazio zentroen eta tentsio baxuko lineen hobekuntza eta egokitzapena, baita lurzoru urbanizaezinean eta landa herriguneetan dauden nekazaritza ustategiak eta etxebizitzak argindarrez hornitzeko lineak ere.

Banaketa sarearen lineen kasuan, airekoak bakarrik lagunduko dira diruz (inola ere ez lur azpikoak, hirigintza arauak hala eskatzen dutelako salbuesten diren kasuetan izan ezik). Babes kaxak eta kaxatik jabetza pribatuko instalazioetara lotzeko instalazioak ere ez dira diruz lagunduko.

Landa bideetan eta herri onurako mendietan egiten diren inbertsioak laguntza programa honetatik kanpo geratzen dira.

Jarduera-ildoak

Ez da zehaztu.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Diruz lagundu ahal izango dira laguntzen deialdiaren urteko urtarilaren 1etik aurrera gauzatutako diruz laguntzeko moduko jardueretako inbertsioak.

Gastuetarako aldi hautagarria

Deialdiko ekitaldiaren kargura diruz lagundutako proiektuak urte horretako azaroaren 15a baino lehen gauzatu eta justifikatu beharko dira.

Bestalde, ondorengo ekitaldiaren kargura diruz lagundutako proiektuak urte horretako urriaren 15a baino lehen gauzatu eta justifikatu beharko dira.

Laguntza bi urtetan banatzen bada, lehen ekitaldiko azaroaren 15a baino lehen aurkeztu beharko da justifikazio partziala (emandako dirulaguntzaren zenbateko proportzionala), eta azken justifikazioa, berriz, bigarren ekitaldiko urriaren 15a baino lehen.